



Gaia: Erabakia, prozedura ebazteko gehieneko epea igarotzea eteteari buruzkoa.

Espedientea: 2023-2025 aldiari egin beharreko oinarriko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2023-2024 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak emateko deialdia (2022ko irailaren 15eko Agindua. 2022ko urriaren 13ko EHAA, 196. zk.)

### Hezkuntza Saila

2023-2025 aldiari egin beharreko oinarriko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2023-2024 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak iragarri zituen Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 15eko Agindua dela eta (2022ko urriaren 13ko EHAA, 196. zk.) Sail honetan izapidetzen ari den administrazio-prozeduran ebaluazio-txosten bat gehitu behar da (10.3 artikulua); izan ere, txosten horrek arloari buruzko iritzia eman behar du eta prozedurari gehitu behar zaio derrigorrean, eman beharreko ebazpenaren edukiri buruz irizpidea zehazteko, horrelako administrazio-prozedurei aplikatzen zaien araudiak xedatutakoaren arabera.

Hori dela eta, jakinarazten dugu 2023ko otsailaren 9an eskatu zaiola Ikerketako Estatu Agentziari aipatutako txostena emateko eta bidaltzeko, administrazio-espeditentari gehitzeko.

13.4 artikuluan sei hilabeteko gehieneko epea ezartzen da ebazpena emateko, deialdia ezartzen duen agindua EHAA-n argitaratzen denetik kontatzen hasita. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura bat ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legezko gehieneko epea igarotzea eten ahal izango da, besteak beste, administrazio bereko edo beste administrazio bateko organo bati nahitaezko txostenak eskatzen zaizkionean. Etendura-epe hori ez da inola ere hiru hilabetetik gorakoa izango.

Horren arabera,

### ERABAKITZEN DUT

2023-2025 aldiari egin beharreko oinarriko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2023-2024 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak iragarri zituen Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 15eko Agindua dela eta (2022ko urriaren 13ko EHAA, 196. zk.) Sail honetan izapidetzen ari den espedientearen Ebazteko gehieneko epea igarotzea etetea, hiru hilabetez, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak eman behar duen ebazpenaren edukia zehazteko funtsezkoa izango den derrigorrezko txostena espedientera gehitu arte, Ikerketako Estatu



Agentziaren Koordinazio eta Ebaluazio Azpiatalakoa. Epe hori igarotakoan, kontaketa berriro hasiko da automatikoki.

Erabaki hau prozeduran interesatuta dauden guztiei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean.

Amaia Esquisabel Alegría  
Ikerketako Zuzendaria